



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO AZAROAREN 29AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Azaroaren 29an, arratsaldeko 18:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Julen Beunza, Javier Auza, M^a Mar Ansorena, Micaela Elizalde eta Iker Isiegas

Bertaratu da baita ere Iñaki Lopez, Berueteko kontzejuko alkatea.

18:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Aurreko aktaren onespena.

Urriaren 25eko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

2.- Alkate ebazpenak

-2023/114 alkate ebazpen, azaroaren 9koa onartuz Lakita S.A enpresari egindako eskaera, iharduera ekonomikoen gunea bukatzeko epea abenduaren 31ean bukatzeko.

-2023/115 alkate ebazpena, azaroaren 9an, onartuz Juantxo Alemanek egindako eskaera, Apeztegi berriko ganbara azaroaren 11ea goizez 10:30etatik 14etara erabiltzeko.

-2023/116 alkate ebazpena, azaroaren 10ekoa Basandereok Elkarteari baimena emanaz eskolako beheko solairua erabiltzeko azaroaren 30ean deitutako greba feministarekin lotutako iharduerak burutzeko.

-2023/117 alkate ebazpena, azaroaren 15eako, Ihabengo aisialdi gunea egokitzeko eta Jausaratsen baso sorgindua egiteko proiektuak erredaktatzeko pleguak onartuz,

-2023/118 alkate ebazpena, azaroaren 16koa, Ecos Travel empresari 195 euroko ekarpena onartuz Basaburuko senda eta puntu turistikoak gida turistikoan sartzeko. Bildutakoek ontzat ematen dituzte onartutako alkate ebazpenak.

3.-117 alkate ebazpena berrestea.

117. alkate ebazpenean onartzen dira alde batetik Ihabengo aisialdi guneko egokitzapen obrak egiteko proiektuaren erredakzioa eta bestetik Jaunsaratsen baso sorgindua egiteko proiektuarena ere. Proiektu hauek Cedernak kudeatzen duen dirulaguntza batean sartuak daude eta premiazkoa da proiektuak abenduaren erdialderako aurkeztuak egoteko horregatik, ebazpen bidez onartu ziren aipatutako pleguak.

Prozedura sinplifikatu bidez tramitatu da proiektu horien esleipena baina ez da inor aurkeztu lan kargagatik ez direla aurkeztu adierazi dute gonbidatutako bost arkitektoek..

Alkateak emandako azalpenen ondorena, bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

117. alkate ebazpena berrestea non onartzen diren Ihabengo aisialdi guneko egokitzapen obrak egiteko proiektuaren erredakzioa eta Jaunsaratsen baso sorgindua egiteko proiektua egiteko aurkeztu behar ziren proposamenen araubidea edo plegua.

Proiektu hauek PDR diru laguntza lerroan sartuak daude eta proiektuak otsailean esleitu behar direnez berriro martxan jarri behar da prozedura. Alkateak adierazten du kontaktuan jarri dela Mediodes aholkularitza bulegoarekin, honako proiektuak egiten adituak dira eta aurrekontua aurkezteko eskatu. Aurkeztutako aurrekontuan zehazten dute alde batetik Ihabengo pasaderen egokitzapena egiteko obraren proiektua eta obra zuzendaritzaren kostea 11.737 eurokoa da BEZ kanpo eta aldiz Jaunsaratsen baso sorgindua sortzeko proiektua eta honen obra zuzendaritza 9.680 eurokoa.

Bi obren gastua dirulaguntza onartutakoa gehienez ere BEZ barne 97.000 euro Ihabengo aisialdi gunearen kasuan eta 50.000 euro baso sorginduaren kasuan izango da.

Hots kontutan hartuta 2018/2 Kontratu Publikoen Foru Legearen 81. Artikulua jarraituz bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Esleitzea Mediodes aholkularitzari Ihabengo aisialdi gunearen egokitzapen proiektuaren eta Jaunsaratsen baso sorgindua egiteko proiektuen erredakzioa eta obra zuzendaritza 11,737 eta 9.680 eurotan hurrenez hurren BEZ kanpo.**
- **Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi adieraziz aipatu bezala bi obren gastua dirulaguntzan onartutakoa gehienez ere BEZ barne 97.000 euro Ihabengo aisialdi gunearen kasuan eta 50.000 euro baso sorginduaren kasuan izango da.**

4.-Taxi baimena esleitzeko pleguaren onspena.

Uztailaren 27ko batzarrean deialdia bigarren aldiz onartu eta argiratzea erabaki zen, aurkezteko epea luzatuz. Epe hori azaroaren 8an bukatu zen eta ez du inork proposamenik aurkeztu.

Aurrekoan onartutako pleguan alkateak aldaketa bat txertatzea proposatzen du, euskararen jakintasuna derrigortasuna ez izatea baizik eta baremazioan kontutan hartuko den irizpidea.

Bildutakoek ontzat ematen dute proposamena eta hortaz berriro ere taxi baimena esleitzeko plegua aho batez onartzen dute eta berriro argitaratua izan dadin agintzen dute Nafarroako Aldizkari Ofizialean, argitaratzen denetik 20 eguneko epea irekitzea proposamenak aurkezteko.

5.- Caixako bankuan ahaldunak onartzea. Kirol batzordeko ordezkariak.

Alkateak adierazten du jada erabaki zela irailaren 27an burututako batzarrean, udaleko bankuko kontuetan alkatea, Micaela Elizalde Ogasun Batzordeko arduraduna eta idazkaria egotea ahaldun bezala. Caixan udalaren IFZ-arekin lotuta dago ere kirol batzordeko kontua, kirol batzordeko ordezkariak kontua erabili ahal izateko ahaldundu behar dira kontu horretan, hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute ondoren zehazten den erabakia hartzea:

- **Kirol Batzordeko ordezkariak diren Javier Auza Alsua eta M^a Teresa Ayestaran Osinaga izendatzea Basaburua Imotz Kirol Batzordeko kontuko ahaldun.**
- **Erabaki hau Caixa banketxera jakinarazi**

6.- Udaleko lehen solairuko etxebizitzaren errentaren esleipena. Pleguaren onspena.

Alkateak azaltzen du plegua prest dagoela esleipenari hasiera emateko, pisua ere prest ikusteko, komuneko teilatua margotu da...

Pleguan txertatu da aldaketa bezala puntuen balorazioan adostasuna badago egoera zahurgarrian daudenak izango dutela lehentasuna...

Bildutakoek errepatatzen dute plegua eta bertan zehazten den baremazioaren banaketa.

Eskaerak aurkezteko epea abenduaren 18an bukatzea adosten dute. Udaleko web orrian eta tabloian argitaratuko da informazioa eta udaleko sare sozialen bidez ere zabalduko da.

Hortaz aho batez bildutakoek ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Onartzea udaleko lehen solairuko etxebizitzaren errentaren esleipena arautuko duen plegua eta proposamenak aurkezteko epea ireki, abenduaren 18 arte.**

7.- PERTE programarako udaleko ordezkaria izendatu.

Alkateaz azaltzen du osatu dela PERTE programan parte hartzeko udalerrien mankomunitatea, bertan daude Baztan, Bera, Etxalar, Leitza, Lekunberri, Araitz, Ultzamanueta... beste batzuen artean eta elkarteko lehendakaria Lekunberriko alkatea izen datua dago.

Hurrengo pausuak emateko udaleko alkatea izendatu behar da ordezkaria, diru laguntza aurkezteko dokumentazioa eta beste sinatu ahal izateko. Bildutakoek hortaz aho batez onartzen dute Santos Etxegia Oronoz Basaburuko alkatea izendatzea eta hau ahalmentzea, PERTE programan sinatu beharreko dokumentuak sinatzeko.

8.- Mozioak.

Azaroaren 25aren inguruko mozioa bidali dute EH Bildutik eta irakurtzen da:

“2003tik aurrera, emakumeenganako indarkeriari buruzko datuak jasotzen hasi zirenetik, 121 emakume eta 12 haur erailak izan dira Euskal Herrian. Haur bat eraila izan da aurten, duela egun gutxi Lizarraldean, Indarkeria bikarioak bere aurpegi krudelena erakutsiz. Berarekin batera, memorian gorde nahi ditugu, 2023an zehar erail dituzten Maialen Mazon, Lourdes del Hoyo, Maria Begoña eta Zhen Jiang.

Azken erailketa matxista guzti hauek hainbat kezka eta urgentzia mahai gaineratu dituzte. Lehena, babes protokoloen gainekoa da. Deskoordinazioak eta ardura ez hartzeak, babesaren kontzeptua eta emakumeengan jartzen den arduraren zama nabarmendu ditu. Bereziki kezkagarriak izan ziren Maialen Mazonen erailketaren inguruan hainbat arduradun polizial, judizial eta instituzionalengatik entzun behar izan ziren biktimaren gaineko birbiktimizazio aipamenak. Indarkeria Matxistaren ardura ezin zaio inoiz biktima den emakumeari jarri, inoiz. Bestalde, Indarkeria Matxistaren aurpegi anitzak eta emakumeak zauritzeko asmoz egiten diren bestelako agerpenek aurpegi gordinena erakutsi digute, haur baten erailketarekin. Indarkeria bikarioa haurrak zein haien amak biktima zuzen bilakatzen ditu. Nafarroako legislazioan indarkeriaren irakurketa orokorrago baten beharra nabarmendu du ere erailketa honek, eta besteak beste, indarkeria bikarioa bezalako agerpenak barnebildu behar direla ikusten dugu.

Urte luze hauetako lana izan da Indarkeriari maskara kentzea. Ez da lau zororen kontua. Sistema patriarkal sendo baten ondorioa baizik. Indarkeria matxistei buruz

egindako makro-inkestak datu larria mahai-gaineratu zuen: bi emakumetik batek indarkeria matxista pairatu du bere bizitzan zehar.

Orain, hitzetatik ekintzetara pasatzeko garaia da. Garrantzitsua da marko bat ezarriko duten legeak berriztea edo sortzea, are gehiago mugimendu feministak eskatutako norabidean egiten denean, baina hauek ez dute ezertarako balio, garapenerako aurrekontu eta baliabide teknikoak ezartzen ez badira.

Azaroak 25 hau beraz, indarkeria matxistaren alderdi desberdinak identifikatzen jarraitzeko eguna izango da, jendartean normalizatuen dauden sotileneetatik hasita, hala nola ukitzeak; ahozko lizunkeriak; mezu eta adierazpen sexistak; janzkera, jendarte-sareen erabilera edo lagunartea kontrolatzea, eremu publikoa (eskolako patioak, jolastokiak, parkeak) askatasunez okupatzeko zailtasunak; edota emakume eta gizonen arteko berdintasuna zuzenean erasotzen dituzten administrazio-erabakiak. Bigarren estadio batean, sexu-erasoak eta eraso fisikoak egongo lirateke, eta, esparrurik bortitzenean, erailketak.

Gutariko bakoitzari dagokigu egoera hori aldatzea, eguneroko zereginetan hasiz, gure inguru hurbilenean jardunez. Eta gure kasuan, erakunde-eremutik jardunez, horretarako beharrezkoak diren baliabide tekniko, ekonomiko eta politikoak aktibatuz, berdintasun-unitateak sustatuz eta haiei laguntza eskainiz, berdintasun-teknikarien egonkortasuna edo kontratazioa bultzatuz, edota emakumeen parte-hartzerako guneak sustatuz (emakumeen etxeak eta txokoak, ahalduntze-eskolak, jai parekideak eta abar). Gure herri eta hirietan bermatuta ez dauden heinean, exijitzen jarraituko dugu.

Guzti honengatik, indarkeria matxista gertakarietan funtzionamendu protokoloek erabiltzen dituzten mekanismo guztiak egokiak izatea da giltza; beti ere, indarkeria mota hau pairatzen duten emakumeen ahalduntzea helburu duten ikuspuntu batetik. Horretarako, instituzio publikoek gain, gai honetan adituak diren pertsonen eta mugimendu feministen parte hartzea beharrezkoa da ezarritako protokoloekin lagundu dezaten, eta azken batean, berdintasunezko etorkizun baterantz abiatu gaitezen.

EH Bildun oso argi dugu indarkeria matxistari aurre egin ahal izateko ezinbestekoa dela berdintasun-politikei beharrezko giza baliabide eta baliabide tekniko eta ekonomikoak ematea, eta ildo horretan, uste dugu ikuspegi feministarekin lan egin behar dugula, egunero eta eremu guztietan. Krisiak ez du aitzakia izan behar arazo larri eta kolektibo honi aurre egiteko beharrezkoak diren aurrekontuen murrizketa edo izoztea justifikatzeko.

- Urtero EAEn Eudelek proposatutako mozioa izaten dugu, eta Nafarroan, Berdintasun teknikarien sareak proposatzen duena. Aurtengo kasuan, bata zein bestea babestearen alde egingo dugu. Eudelekoak, gazte eta nerabeen artean ematen diren indarkeria espresioez eta honi aurre egiteko sexu heziketa

integralaz hitz egiten du, bestelako proposamen zehatzak gehituz. Nafarroakoaren berri ez badugu ere, edukiz egokiak eta proposamen zehatzez osatuak izaten diren proposamenak izanik, bat egiteko ideari helduko diogu.

- Argi utzi nahi dugu ordea, gure herri edo instituzioetan lanketa espezifikoa batean murgilduak bagaude, edo aurtengo mozioa zentzu ezberdin batean joatea behar badugu, tokian tokiko errealitateei egokitzea oso egokia dela eta ez dela horregatik Eudeleko zein Berdintasun teknikariek proposatutako testua gure egin.
- Bestelako alderdiek haien kabuz haien proposamena erroldatuz gero, zirkular honen hasieran osatutako ideiekin eta jarraian agertzen diren proposamenekin zuzenketa bat egin beharko genuke. Besteak beste:
 - 2024ko aurrekontuen prestakuntzan murgilduta gaude, eta beraz, berdintasun-arloaren aurrekontuetan igoerak aplikatzeko konpromisoa hartuko dugu.
 - Gure erakundeak berdintasun-sail bat baldin badu, baliabideak emateko eta, horrela, egonkortzeko eta indartzeko proposamen bat sartuko dugu. Giza baliabideak egonkorak izan ezik, lan baldintza duinak ere izan behar dituzte. Gure erakundeak ez badu berdintasun-sailik edota gizarte-zerbitzuekin batera baldin badago, sail hori sortzeko proposamena egingo dugu.
 - Gure antolamenduan indarkeria matxistaren aurkako erantzun publikorako edo arreta eta koordinaziorako protokolorik ez badugu, talde feministekin eta emakume-taldeekin batera egiteko proposatuko dugu.
 - Eta erakundeak protokoloren bat baldin badu, proposatuko dugu baliabideak aktibatzea jarraipen, ebaluazio eta berrikuspen egokiak egiteko, ikuspegi feminista eta parte hartzaile batetik.
 - Udalerrian parte-hartzerako gunerik ez badago, proposatuko dugu emakumeen etxe eta txokoei, ahalduntze-eskolei, parte-hartze eraginkorrerako guneei eta udalerriko emakumeen elkarte zein kolektibo feministek inoiz eskatu izan duten parte-hartzerako edozein eremu motari laguntza ematea. Udalerri batzuetan espazio horiek murrizketak izan dituzte aurrean. Horiek mantentzeko eskatu behar dugu, indarkeria matxisten aurrean ahalduntzeko eta ekintza feminista kolektiborako funtsezko espazioak baitira.
 - Mugimendu feministarekin eta emakumeen mugimenduekin egin beharreko lankidetzak sartuko dugu nahitaez.
 - Ez dugu inola ere onartuko “etxeko indarkeria” izendapena, eta ahal den neurrian ez dugu erabiliko “genero indarkeria” adiera, “**indarkeria matxista**” lehenetsiko dugu.”

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Bestetik bigarren mozio bezala Palestinan gertatzen ari denaren ingurukoa da, ondoren transkribatzen dena:

“Palestinaren eta Israelen arteko gatazkaren gogortze izugarria gertatzen ari da. Hamasek urriaren 7an egindako erasoak, Israelgo indar armatuek Gazari ezarritako egindako blokeo, bonbardaketak eta era guztietako erasoak horren isla mingarriak dira. Hildakoen kopuruak gora egiten du etengabe, eta Israelek proklamatu duen erabateko gerra-deklarazioak eta bere gobernuak iragarritako oinarrizko horniduren blokeoak muturreko zaurgarritasun-egoeran utzi ditu Gazako herritarrak. Azken hauek hainbat hamarkada daramatzate setiopean, Israelek palestinarren lurak legez kanpo okupatzearen ondorioz.

Israelgo armadaren azken erasoak Gazako iparraldean dagoen Jabaliako errefuxiatu-esparruan izan da, eta 400 pertsona inguru hil dituzte, horietatik gehienak emakumeak eta adingabeak. Zauritutako pertsonak ere ehunka dira.

UNRWak (Palestinako errefuxiatuentzako Nazio Batuen Agentzia) baieztatzen duen bezala, Gazan ikusten ari den suntsipen mailak ez du aurrekaririk, egundoko giza tragedia da. Nazio Batuek proportzio epikoko hondamendi humanitario gisa deskribatu dute. Hildakoen kopuruak gora egiten jarraitzen du, modu ikaragarrian. Azaroaren 2ra arte 9.061 heriotza zenbatu ziren; horietatik 3.760 haurrak ziren, 2.326 emakumeak eta 480 3. adinekoak. Hau da, hilketen % 70 adingabeak eta emakumeak dira. Zaurituak 21.000 baino gehiago dira.

Milioi bat pertsona, Gazako biztanleriaren erdia, Gazako iparraldetik hegoaldera desplazatuak izan dira. Hala ere, hegoaldea ez da bonbardaketetatik libratu, eraso kopuru handi bat izan baita. Ez dago toki segururik Gazan.

Arestian aipatutako guztiagatik, Basaburuko Udalak:

1. Irmo arbuiazen ditu herritar zibilen egindako erasoak, eta elkartasuna adierazten die biktima guztiei eta haien gertukoei. Kolektibo ahulenetako kide diren biktimak.
2. Eskatzen du Gazako Lerroaren eta Palestinako lurralde guztien gaineko setioa eta bonbardaketak bertan behera uztea, bai eta laguntza humanitarioa sartzen dela bermatzea eta korridore humanitarioak berehala irekitzea ere.
3. Uste du bake justu eta iraunkorrak herri palestinarren aurkako okupazioa amaitzea eskatzen duela.
4. Premiazkotzat jotzen dugu elkarrizketa-prozesu bat abian jartzeko beharrezkoak diren neurri guztiak babestea, bake-egoera justu, egonkor eta iraunkorra lortzeko, okupazioaren amaiera eta Palestinako herriak autodeterminaziorako duen eskubidea bermatuz. Hori guztia Nazioarteko Zuzenbidean eta NBEren ebazpenak betetzean oinarrituta.
5. Eskatzen dio Nafarroako Gobernuari lurralde palestinarrean diharduten instituzio eta erakunde ezberdinekin lanean jarraitzeko eta indarrean dauden lankidetzak proiektuei

eusteko. Halaber, Palestinako herriari laguntza humanitarioa bermatzeko erreferentziazko UNRWA agentzia ere babesten du.

Bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako mozioa.

Gai ordenetik kanpo beste hiru gai daudela adierazten du alkateak eta bildutakoek aho batez onartzen dute hirurak gai ordenean sartzea:

Arraratsko Lardi etxearen erauspen espedientea.

Alkateak azaltzen du eraikinaren egoera okerrera doala, jada erauspen espedientea hasi zen batzarrean, Bianako Printzearen Institutoaren katalogoan dagoenez erakina beraiak txostena egin zezaten eskatu zitzaien eta hala jakinarazi ere jabeari.

Bianako Printzearen Institutoak txostena bidali du eta erauspena egiteko baiezkoa da, baina adierazten du derrigorrez gordetu eta sailkatu beharko direla babestutako elementuak, harriak eta beste...

Hurrengo pausoa da irmotasuna ematea erauspen aginduari eta hortaz jabeari derrigorrezko obrak egiteko eskatzea, udal arkitektoaren txostenean adierazten direnak eta noski ere Bianako Printzearen Institutoak finkatzen dituen baldintzetan.

Obra horiek egiteko epea 2 hilabeteen finkatzea adostu da hirigintza batzordean, udal arkitektoaren proposamena jarraituz.

Hots bildutakoek aho batez erabaki hau hartzen dute:

- **Arrarasko Lardi etxearen erauspen egoerari irmotasuna eman eta jabeari eskatu udal arkitektoak zehazten dituen derrigorrezko obrak egitea Bianako Printzearen Institutoaren txostenean zehazten diren baldintzekin.**
- **Obra horiek egiteko epea 2 hilabeteen finkatu.**
- **Erabaki hau jabeari jakinarazi adieraziz, epe horretan ez balitu obrak egin, udalak txosten zigortzailea eta beste hasteko aukera izango lukeela.**

PDR diru laguntzan parte hartzea polikiroldegian eguzki plaken azpiegitura obra egiteko.

Alkateak azaltzen du irailaren 22an argitaratu zela PDR programan parte hartzeko epea, programa hau Cederna Garalurrek kudeatzen du europako funtsen bidez.

Polikiroldegian eguzki plakak jartzeko proiektua bertan sartzearen inguruan bilera egin da Cederna teknikariarekin eta onartzeko aukerak dituela adierazi du baina horretarako Goiener enpresak egin duen memoria diru laguntza honetara egokitu behar da eta hala egitea eskatu zaie. Onartuko balitz laguntza, gastuaren % 70koa da.

Onartzea 178E/2023 ebazpen bidez Landa Garapeneko Zuzendariak ireki duen PDR programan parte hartzea Polikiroldegian eguzki plaken azpiegitura jartzeko.

Onartzea ere Polikiroldegian eguzki plaken azpiegitura jartzeko memoria eta bertan agertzen den gastua PREZIO JARRI.

Erabaki hau Cederna Garalur entitateari jakinarazi.

Gai zerrendatik kanpo dauden gaiekin bukatzeko alkateak irakurtzen du Aldazko kontzejuak bidalitako eskaera. Bertan adierazten dute Beruete eta Aldatzko herriak lotzen dituen errepidea Nafarroako Errepidea Planean sartzeko eskaera Nafar Gobernuari zuzendu ziotela eta haiek adierazi lehen pausoa zela erabaki hori batzarrean onartzea, eta hala egin dute haiek. Kontutan hartuta errepide horrek Beruete eta hots Basaburuan ere eragina duela, aipatutako bi entitateek ere aukeran eskaera hau babestu beharko lukete.

Berueteko kontzejuak eskaera babestu du, orain Basaburuko udalak hartu behar du erabakia.

Bildutakoek aho batez onartzen dute Aldazko kontzejuak egindako eskaera eta alkatea ahalmentzen dute eskaera hori babesteko hitzarmena sinatzea.

9. - Batzordeen informazioa.

Kirol Batzordea. Javier Auzak ematen du informazioa.

Yoga eta gimnasia ikastaroak hasi dira 14 eta 5 parte hartzaileekin hurrenez hurren.

Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Euskara batzordearen bilera izan da eta 8 pertsona bertaratu ziren. Bailararen egoera aztertu nahi da, indargunean agerian jartzeko. Gazteekin euskara sustatzeko jarduerak egin nahi dira.

Bestetik euskara mankomunitateko zonaldeko aurrekontuan 400 euroko soberakina egonik, gabonetarako ludoteka antolatuko da.

EGA doako ikastaroak egitea aztertzen ari dira eta ere ostalariei eskaini nahi zaien ikastaroa, aurreko urtean eskaini zitzaizen bezala.

Gazteendako bertso eskola egitea ere baloratzen ari dira batzordean.

Kultura Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.

Hurrengo urtean burutu nahi diren ekimenekin egutegia egiten hasi dira. Bitartean Olentzeroren prestaketekin hasi dira.

Gizarte Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Herrietan jarri diren elementuak erabiltzeko hainbat tailer burutu dira azaroan zehar. Automasaje tailerra ere burutu da.

Pintxo lehiaketa azaroaren 18 eta 25eko asteburuetan burutu da eta Alzarotzko ostatuak irabazi du.

Ekintza guzti hauek osasun programen diru laguntzetan sartuak daude.

Bestetik Jaunsaratsko Txokolatero etxean burutu nahi den eguneko zentruaren inguruan hitz egiteko Nafar Gobernutik, lerro horien diru laguntza ematen duten bi ordezkariekin izan da bilera.

Aipatutako etxeko jabeak 100 urte bete zituen azaroaren 25ean eta udalak omenaldi bezala zapi bat eraman zion egoitzara opari bezala.

Berdintasun Batzordea. M^a Mar Ansorenak ematen du informazioa.

Ultzamako Gizarte Zerbitzuetako mankomunitateko berdintasun teknikariaren lanaldia Ultzamaldean eta Leitzan banatu izan da orain arte, aldiz Leitzak zuzenean kontratatu nahi du berdintasun teknikari bat lanaldi osoan haien beharrak asetzeko.

Ultzamaldean orain arte teknikariak %50eko lanaldia egiten du, Leitzan ateratzen bada hitzarmenetik erabaki beharko da lanaldia luzatuko zaion, nola banatu lanaldi luzapen horren gastua eta beste..

Azaroaren 25ean udalean deitutako elkarrateratzera ez zen inor etorri aldiz bai kizan zela arrakastatsua azaroaren 26an eskaini zen Sasiak eta haziak dokumentalaren ikuskizuna.

Azaroaren 30an deitutako greba feministaren inguruan, eskola izendatu da greba gune bezala, bertan 9ak aldera elkartzeko deia zabaldu da, 11etan Irurtzunen deitua dagoen manifestaldira joateko, eskolan bazkaldu ondoren arratsaldean, Iruñean 18etan deitutako beste manifestaldira joango da.

Abenduaren 10etan Aizarotzen burutuko da Luzia Goñiren omenaldia, herrikoetxean egiten ari diren murala ikusiko da, bertso musikatuena saio bat izango da, bazkaria eta beste...

Gainera ere Aizarotzen Luzia Goñiren bizitzaren inguruko erakusketa bat dago ikusgai.

Etxebizitza Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.

Batzordea osatzeko bilera egingo da.

Komunikazio Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.

Whasap kanala martxan jarri da eta udaleko web orria eguneratzen da lametza enpresa. Bertan enpresan atala eguneratuko da, indarrean ez daudenak baja emateko, eta aukera eskainiz haien datuak osatzeko.

Udal buletina martxan jartzeko aurrekontuak biltzen ari dira, orain arte Amezti elkarteak aurkeztutakoan, ale bakoitzeko gastua 1000 euro ingurukoa da.

10.- Informazio orokorra.

Hitzarmena sinatzeko aukera luzatu zaio udalari, NGko arreta goiztiar zerbitzua NUFK-en bidez emateko. Arreta hau, familiek eskatzen badute egingo da, doakoa orain arte bezala, udalaren betebeharra da arreta egiteko gela bat uztea eta horrekin lotuta hornidura eta bestelako gastuak bere gain hartzea. Beharrezkoa den ekipamendua zerbitzuak berak ekarriko luke. Hitzarmen honek lau urteko epealdirako sinatzen da, ondoren luzatu ahal da bi aldeak ados badaude beste 4 urterako edo 4 urteren buruan moztu hitzarmena

Bildutakoek eskolarekin hitz egitea proposatzen dute eta eskolako gela batean burutu zerbitzua eta beraiek onartzen badute, hitzarmena sinatzea adosten dute bildutakoek eta alkatea dokumentu hori sinatzeko ahalmenu.

11. Errege-galderak

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 19:40 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.